

## **ARTE EDERREN FAKULTATEAREN URTE BUKAERAKO DEIALDIA**

Deialdian hautatutako obra(k) urte amaierako oparitxo gisa erabiliko du (ditu) fakultateak erakunde, museo, arte zentro eta abarretara bidaltzeko.

Gaia: Librea.

**Epea: Azaroaren 23ra arte.**

Dotazioa: 600€. (Proposamen interesgarri bat baino gehiago egonez gero, bi obra aukeratu ahal izango dira gehienez, 600€ bakoitzako)

Aurkezteko tokia: Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan.

OINARRIAK:

- 1.- Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute 2020/21 ikasturtean Arte Ederren Fakultateko edozein gradu eta graduondokotan matrikulatutako ikasleek.
- 2.- Egile bakoitzak bi obra aurkeztu ahalko ditu, gehienez. Egile piezak bilatzen dira, ez "gabonetako mezuak".
- 3.- Irudiaren tamaina ez da izango DIN A-4 baino handiagoa.
- 4.- Lanak Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan entregatu behar dira, behar bezala identifikatuta. Obrak aurkezteko azken eguna: 2020ko azaroaren 23, astelehena.
- 5.- Epaimahaiak erabakia hartu eta 15 eguneko epean jaso ahalko dituzte parte hartzaileek hautatu ez diren obrak. Epe hori igarota, Arte Ederren Fakultatea ez da horien erantzule egingo.
- 6.- Hona epaimahaia osatuko dutenak: Arte Ederren Fakultateko dekanoa, edo horrek eskuordetzen duen dekanordea, bi irakasle eta Arte Ederren Fakultateko Ikasleen Kontseiluko ordezkari bat.
- 7.- 600 euroko sari bat egongo da (dagokion PFEZa deskontatuta). Proposamen interesgarri bat baino gehiago egonez gero, bi obra aukeratu ahal izango dira, gehienez. Hautatutako egileak zenbakitutako eta sinatutako 500 aleko edizioa egingo du. **Fakultateak finantzatuko ditu behar diren materialak.**
- 9.- **Edizioa dekanordetzan entregatu ondoren jasoko da saria. Edizioa entregatzeko azken eguna, banaketarako prest egonik, 2020ko abenduaren 9a izango da.**
- 10.- Hautatutako obra(k) Arte Ederren Fakultatearen esku geratuko da (dira), eta obraren (obren) erreproduktzio eskubideak izango ditu 500 ale argitaratzeko, baita deialdia komunikatzeko eta zabaltzekoak ere.
- 11.- Lehiaketan esku hartzeak esan nahi du berekin daramatzen oinarriak ezagutzea eta deialdiaren ebazpena ere onartzea.